

# Asisko gutuna

2023ko urtarrila

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

171. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Nire laguntza solidarioa gauza zehatzetan hasten da, baina gizartearen eta gizateriaren begirada globalagoa ere behar du.

## Gogoetarako gaia

### *Begirada jasoaz*

Jesusek —Jainkoa gurekin— sortutako besteen aldeko elkartasunak eta solidaritzak lagundu egiten digu pertsonak eta gizartea sakontasunean begiratzeko. Honekin batera, beharrean bizi diren eta hauei laguntza eskaintzen dien pertsonekin loturak egiten ere laguntzen digu. Baina, eta hau azpimarratzekoa da, mundua eraldatzera ere eramaten gaitu. Solidaritzak pertsona bakoitzaren egoeratik begirada harantzago jasotzera eramaten gaitu. Horrela, hainbeste sufrikario sortarazten duten mekanismo asko ikustera iristen gara. Mundua, ezagutzen duguna, beste modu batekoa izan daiteke, beste era zuzenago eta errukitsuagoan antola daiteke. Sufrimendu batzuk ezinbestekoak dira, baina badira saihestu daitezkeenak horretarako bitartekoak jarritz gero, edo gizartea beste era batera antolatuz gero.

Elkartasunak bultzatzen gaituen begirada jasoago horrek berekin dakar gizarte- eta politika-errealitatea aldatzearen alde lan egitea, bai mundu- eta planeta-mailako alderdi globaletan, bai udal-mailako eta ingurune hurbileneko alderdi partikularragoan. Egia da horrek nolabaiteko ezinegona sortzen due-

la gizarteko eta elizako hainbat arlotan, baina Elizaren doktrina sozialak beti adierazi izan du fedearen dimentsio garrantzitsu hori: gizarte zuzenago baten aldeko lana, munduko pobreei eta etorkizunik gabekoei begira.

Kristau solidaritatea Jainkoak gureganako duen errukitik sortzen da, baina gure fedearen dimentsio honek gure indibidualismotik ateratzen gaituen ondorioak ditu, eta mundua horrelakoa izatea eragiten duten mekanismoei begirarazten digu. Horrela, guztiontzako bidezkoagoak eta errukitsuagoak diren beste eszenatoki batzuetara aldatzearen aldeko lan egitera bultzatzen gaitu.

Erabakiak politikaren eta ekonomiaren arloko adituentzat eta profesionalentzat bakarrik uzten direla dirudi gizarte honetan. Baina solidaritzak gizarteari eta honek daraman martxari ikuspegi indibidualago eta partikularra baino begirada jasoago batetik ikustera eramaten nau. Eta era honetan, errealitate partikularraren zein globalagoaren aldatzearen alde lan egitera narama.

## Biblia pasartea: 2Kor 9,1-2.6-9

Fededunen aldeko diru-laguntzari buruz ez duzue nik gehiago idatzi beharrik. Ezaguna dut zuen borondate ona, eta horrek harro ibilarazten nau Mazedoniakoen aurrean: Akaiakoek prestakizunak iaztik eginak dituztela esaten diet, eta zuen arreta bizia bizkorgarri gertatzen da gehientzat.

Izan kontuan urri ereiten duenak urri biltzen duela, eta oparo ereiten duenak bildu ere oparo biltzen. Eman beza bakoitzak bere kontzientzian erabaki duena, baina ez gogo txarrez eta behartuta bezala, alai ematen duena maite baitu Jainkoak. Eta ahalsua da Jainkoa, era guztietako dohainak zuei oparo emateko, zeuentzat denetik nahikoa izanik, egintza on guztietarako sobera izan dezazuen, Liburu Santuak dioen bezala: Esku betean ematen die behartsuei, haren eskuzabaltasunak betiko dirau

## Frantziskotar espiritualtasuna

Bi. anaiaren ama etorri zitzaion behin santuari, konfiantza osoz limosna eske. Aita dohatsuak, emakumeaz gupidaturik, bere bikario zen Pedro Cattani anaiari esan zion: «Ba al dugu ezer geure amari emateko?» Izan ere, edozein anaiaren ama beraren eta anaia guztien ama zela esaten zuen. Anai Pedrok erantzun zion: «Etxean ez dago eman diezaiokegun ezer». Eta gehitu zuen: «"Itun Berria" liburu bakar bat dugu, brebiamiorik ez daukagunez, maitinetako irakurgaiak egiteko erabiltzen duguna». Frantziskok dohatsuak, orduan: «Emaiozu geure amari Itun Berria, bere beharretarako sal dezan, liburuak berak agintzen baitigu behartsuei laguntzeko. Uste dut atseginago izango zaiola Jainkoari limosna, irakurgai bano».

Beraz, emakumeari eman zioten liburua, eta Ordenan izan zen lehen Itun Berria, erruki santuaren mesedetan galdu zen. (2Zel.91)

## Otoitza

Jauna, ikus dezala...  
 ... ikus dezadala zure aurpegia izkina bakoitzean.  
 Ikus dezala behartsua barrez,  
 barre alai eta argiaz.  
 Ikus dezadala ilusioa pizten  
 egun batean amets egitea eta sinestea  
 ahaztu zitzaion begi itzalietan.  
 Ikus ditzadala,  
 maitasun, bake eta etorkizuneko  
 mirariak eraikitzen dituzten  
 ezkutuko, baina nekaezinak diren  
 besoak.  
 Ikus dezadala aukera eta deia  
 lanbroa besterik ez dagoen tokian.

Ikus dezadala nola berreskuratutako duintasunak  
 munduko infernuak ixten dituen.  
 Beste batengan ikus dezadala nire anaia,  
 ispiluan, apostolu bat  
 eta nire baitan antzeman zaitzadala Zu.

Ez dudalako itsu ibili nahi,  
 zure presentziatik galduta,  
 ezerezak distrahituta...  
 nire urratsak okertuz  
 zu gabeko lekuetara.

Jauna, ikus zaitzadala...  
 ... ikus dezadala zure aurpegia izkina bakoitzean.

## Gutuneko azken hitzak

Elkartasun desinteresatua eskatzen dizuet, eta ekonomia eta finantziatik gizakiaren aldeko etikara itzultzea.  
 AITA FRANTZISKO

### 2023ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate erreferentzia guztiak:

1 Lk 2, 16-21	8 Mt 3,13-17	15 Jn 1,29-34	22 Mt 4,12-23	29 Mt 5,1,12a
2 Jn 1, 19-28	9 Mk 1, 14-20	16 Mk 2, 18-22	23 Mk 3,22-30	30 Mk 5,1-20
3.Jn 1, 29-34	10 Mk 1, 21-28	17 Mk 2, 23-28	24 Mk 3, 31-35	31 Mk 5,21-43
4 Jn 1, 35-42	11 Mk 1, 29-39	18 Mk 3, 1-6	25 Mk 16,15-18	
5 Jn 1, 43-51	12 Mk 1, 40-45	19 Mk 3, 7-12	26 Mk 4, 21-25	
6 Mt 2,1-12	13 Mk 2, 1-12	20 Mk 3, 13-19	27 Mk 4, 26-34	
7 Mt 4,12-17.23-25	14 Mk 2, 13-17	21 Mk 3, 20-21	28 Mk 4, 35-41	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Urtarrileko otoitza hilaren  
 26an izango da.